

# Roberto González de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi

Euskaltzain osoa

Agintariok, euskaltzainkideok, jaun-andreok, egun on.

Bigarren aldiz egokitu zait euskaltzain berri baten sarrera hitzaldiari arrapostua egin beharra; oraingo honetan Bilbon sortu baina aspaldixko arabartu zen Roberto González de Viñaspreri erantzun behar diot. Nola zen kontua. Ez nekien arras ongi. Azkenean hark nola, nik ere hala egitea erabaki dut, laburrago, hori bai, hala behar eta.

Uste dut euskal izenek ekarri gintuztela euskararen mundura bai Roberto eta bai ni, adin bertsuan, gainera, hamabosna urterekin. Bestalde, gauden inguru hau eta ni sortu nintzen herria, Uxue, irudiak dira alderdi anitzetarik, eta, batez ere, hizkuntza historiaren aldetik, biak egon baitira luzaz euskararen eta erromantzearen arteko mugan. Trebiñu alderdiak eta Arabak, oro har, gaztelania sortu zen eremuarekin mugatzen du; Uxue aldeak, aldiz, lehen «nafarrera-aragoiera» eta egun, bigarren osagaia kenduta, «nafarrera» deitzen den horrekin, baina «aragoiera» mintzo zen alderdia hurran zen betiere.

Robertok bere buruari egiten zizkion galderak eta nik neureari egiten nizkionak ere paretsukoak dira: nolakoa zen hemengo hizkera?, non zegoen hizkuntza muga?, noiztsu lekutu zen euskara hemendik? Horren berri testuek eman diezagukete, testurik baldin badago behintzat, baina horiek -gehienxkoenetan han-hemen agertzen diren predikuak- usaian kontuz ibili beharrak izaten dira, elizgizonek bestek egingakoa baliatzeko joera izaten baitzuten. Orain ez dakit. Horren erakusgarri da, adibidez, Xurio lapurtarraren *Jesukristoren imitazioea*-ren ale bat Uxueko elizako

liburuen artean egotea. Seinale txarra ere ez da, Iparraldeko euskara, egokituxea segur aski, Uxuen erabiltzeko modukoa izatea.

Euskara ikasten hasteko eskuliburu bana izan genuen Robertok eta nik, hori bai: Robertok Xabier Peñaren *Euskal Irakasbide Laburra* eta nik, berriz, Juan Oñati-biaren *Método de euskera radiofónico*, irratirik ibiltzen ez banuen ere. Oroitzen naiz *ola* agertzen zela ‘fabrika’ erranahiarekin, garbizale joera pixka bat bazuelako, eta ez da harritzeko garai hartan, *tartaria* aldia igarota ere.

Bestalde, gibelera begira, Robertoren arbasoak lagrandarrak eta gernikarrak ziren, aditu dugun bezala. Nireak uxuetarrak, amaren aita salbu, *Leoncio Zaratiegi* salbu, hura oletarra baitzen, orbaibartarra. Ondokoa, hori bai. Ez nekiena eta Peio Monteanori esker ikasi dudana da gure *Salaberi* deitura Zuberoatik etorria dela, denbora hartan *Sorhoeta* zen Sohütatik edo inguruetatik, 1600 aire horretan. Segur-segur ere ez dakit, auzibide batean ageri den *Salaberi* Pitillasen bizi zelako, sasoi hartan Uxueko auzoa zen Pitillasen. Kontua da Uxueko dokumentazioan 1629an ageri dela lehen aldiz *Salaberi* deitura, eta Carrascoren lanari esker badakigu 1366an holakorik ez zegoela. Nik etorkiz baxenabartarra zela pentsatzen nuen, zaraitzuarrek beste aldekoekin harreman usuak izan dituztelako, eta haien altxonbide edo ardibidea guretik igarotzen delako, Erriberarako bidean. Baina ez, nonbait.

Sohütarra *Juanes de Soroeta* y *Salaberi* zen, *artxaikoa*, Elkanokoak dioen moduan. Haren erdi anaia edo anaia erdia -bietara erraten baita- Pitillasa bisitan etorritako *Oliber de Soroeta* zen. Hain segur egun Ainharbeko egiten den *Salaberria* etxekoa zatekeen *Juanes*, orain bederik beste *Salaberria*-rik ez baita, dakigunez, Sohütan.

Euskararen aztarnei dagokienez, Uxuen ez dugu halakorik egin esaldia dugu 1581ean (Monteano, 2017: 178), eta ondoko pasarte hau 1598an: *alcabuz aldibat* eta *arcabuzas es, estiot arcabuzau emanen, estate gure probechu arcabuzetara etorri bagajtes*. Bigarren pasarteño honetan interesgarriena da Sohütatik Pitillas eta Uxueren arteko mugara bisitan etorritako *Oliber de Soroeta* izan zela uxuetarrek elkarri errandako hitzen «transkribatzailea», hots, notarioari eman, diktatu zizkiona. Aintzat har bedi, bestalde, notarioaren izen-deiturak *Fauste de Oñati* zirela, oñatiarra sortzez, zalantza handirik gabe. Horixe da benetako euskara batua! Ikusten da euskal hizkerak orain baino hurbilago zeudela bata bestetik, eta elkarri ulertzeko arazoak ere gutxiago zirela.

Euskara galdutakoan jendeak egiten dituen euskal toponimoen egokitzapenak bizi-erakargarriak dira, baina ez da hau ez lekua ez unea holakoetan hasteko. Bakarrik Jimenok (2010: 108 eta 2014: 306) biltzen dituen *Astraingo Gatzarrikoa* (*gatzarria* ‘ardiei gatz emateko harria’) eta Otxobiko *Sanmigelagerre* edo *Sanmigelagerri* ‘San Migel santutegia lehen aldiz ikusten den gunea’ toponimoen *Cacharricos* eta *Sanmigelagarro* aldaera desitxuratuak aipatuak ditut. Bigarren hau dela eta, azalpen hau eman omen zioten Jimenori: «De allí se ve tan cerca San Miguel [de Excelsis], que parece que lo coges con la mano; por eso se llama “San Miguel agarro”».

Toponimiari lotuz, eta Robertok aipatu duen *beroki*-ren harira, azpimarratu nahi dut gauza bat dela EHHAk dioena eta beste bat toponimiak dioena, nahiz ez diren inola ere elkarren aurkakoak, elkarren osagarriak baizik. Erran nahi dut *beroki* hitzak eremu zabala hartzen duela Nafarroan, aipatu atlasak bakarrik Mezkitzen, Abaurregainean eta Jaurrietan bildu bazuen ere, Robertok adierazi duenez. Konparaziorako, Arabako mugako Ameskoan *Berokiko hegia* dugu Zudairin 1665ean, *Egoaberokia* oraino bizirik dago Zaren, *Egoaberokia* eta *Egoaberokikoa* onik daude Iruñerrian, baita *Iparberokia* eta *Iparberokikoa* ere. Burundan, berriz, hau ere Arabako mugan, *Iparberokia* dugu egun Olatzagutian (Salaberri, 1994: 825, 931, 951). Lergako agirietan, Epaizko eta Uxueko mugan, *Txutxuberokia* edo *Txutxuko berokia* ageri zaizkigu, erdarara *Abrigo de Txutxu* iraulia, baita *Arrakoaberoki* eta *Jaundonepetriberokia* ere, lehena oraino bizirik, hondarrekoa dokumentazioan kausitua (*ibid.*, 587-588, 623, 653-654). Erka bedi hau Erroibarko *Ezkirozko berokia* vs *Ezkirozko ospela*-rekin (1788, NEAN, Aurizko pr., 42, J. J. Aquerreta): «otra (pieza) *Ezkirozco beroquian* [...] otra en *Ezkirozcoospela*».

Toponimiak euskara galdu den alderdietan gauzak nolatsu ziren ikusteko aukera ematen digu; arriskurik handiena, seguruenik, sinkronia desberdinak alderatzean eta nahastean dago. Zernahi gisaz, interesgarria litzateke aipatu *beroki* horrek, beste-tako *berogi* eta *bellope*-rekin (bigarren hau Zuberoko da, Andoze ibarrekoa; Peillen, 1991: 196) berdintzen dugunean, nolako eremu banaketa duen eta izan duen ikus-tea. Adibidez.

Robertok aipatu duen *baso*-ren (*Basarana*, *Basartea*, *Basondoa*) eremu banaketa zein izan den ikustea ere interesgarria litzateke, ez erraza, baina bai interesgarria. Nik erranen nuke Nafarroako erdialde-ekialdean *oihan* ibili dela gure hizkuntza bizirik egon den azken denboretan. Badakit *baso* eta *oihan* beti ez direla elkarren adierakideak, baina Luzaiden, konparazione, etxe eta bazterretxe bakoitzak duen basoari *oihan* erraten diote; *oihan* ez da bakarrik mendi zuhaitzez estalia, edo baso

handia. Hau aipatzen dut Nafarroako erdialde zabaleko toponimian, gehienetan, *oihan* dagoelako. Bonapartek ere *oyan* ‘bois’ eta ‘montagne (boisée)’ (Ondarra, 1982: 138) jaso zuen Garesen (hemen ‘bois’ bakarrrik), Elkanon, Oltzan eta Goñin. Alegia, Iruñearen inguruko alderdi zabalean.

Era berean, Ana Echaideren *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)* hartzen badugu, ikusten dugu gaztelaniazko *bosque* errateko, Izabatik hasirik, *oihan* edo *mendi* ematen zutela berriemaile ia guztiek (erdaraz *monte* ‘oihana’ ere bada). Salbuespenak Lakuntzako *banue malkorra* bitxia, Bakaikuko *bani[j]oa basoa* eta Ziordiko *bani[x]oa basoa* dira, hondar bi hauek Arabako mugan den Burundako herriak, ongi dakizuen bezala.

Azken datuak bat heldu dira Arabako mugako Lana ibarreko Narkue herrian *Basorabidegaina* eta haran bereko Iribarrin *Basabazterra* aurkitzearekin, baita Doneztebe Iguzkitzako Barbarinen, Los Arcos ondoan, *Basagaitza* eta *Basaldea* izatearekin ere. Uxuen ere, beste muturrean, baina baztergunean betiere, *Basandia* dugu bizirik oraindik, eta ez da sekula *oihan*-ik ageri, ondoko Oibar haraneko herrietan ele horixe (*oihan*) azaldu arren. Nolanahiko gisan, kontuan har bedi *Basaburua*, *Basabürüa* franko hedatua dagoela eta egon dela, eta ez dago zalantzarik hor *baso* dugula. Nafarroako erdialde-ekialdeko toponimian, bestalde, *baso* ere lekukotzen da, eta ez bakarrik *Basasagarra*-ren erakoetan.

Hortaz, irudi luke *baso* zela lehengo elea, edo *baso* eta *oihan* batean ibiltzen zirela, eta gero toki batzuetan *baso* aukeratu zela eta besteetan *oihan*, nahiz toponimiak berak (erraterako, Luzaideko egungo *Gaindola* auzoa *Basaburua* izan da berandu arte) eta *basasagar* edo *ahuntz basa*-ren modukoek garbi adierazten diguten lehenago *baso* ere ibiltzen zela, azken mendeetan eta egun hitza erabili eta erabiltzen ez duten tokietan ere.

Honelako bereizketa eta «ñabardurak» zenbaitentzat garrantzirik gabeko kontuak dira, testuetan agertzen ez badira. Nik ongi dakit gauza bana direla onomastika eta euskara «arrunta», baina ongi dakit, baita ere, toponimian edireten ditugun gauza asko euskara bizirik egon den azken denboretako lekuan lekuko hizkeraren ezauzgarriak direla, orain ikusi dugun bezala, fidagarriak, lurrari atxikirik daudelako. Eta aintzat hartu behar liratekeela, hein batean segurik, bai Araban («zazpigarren alaba» Gorka Knörren kantuan) eta bai Nafarroan (zenbatgarrena ote da?, lehena ez, hori garbi).

Bururatu aitzin, Robertok eta Pedro Uribarrenak (2016) argitaratu zuten artikululu txiki batean eta hango eta hemengo datuetan oinarritu nahi nuke, beste etsenplu bat aipatzeko. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ez da *isasi* biltzen; OEHN bai, eta ‘jaro’ adiera ematen zaio. Gaztelaniazko hitz hori, RAEren hiztegiaren arabera, ‘mancha espesa de los montes bajos’ da, eta Araban (oker ez banaiz) ‘haritz txikia’. Orain ordea badakigu *isasi* edo *itsasi* beste zerbait (ere) (ba)zela. Ikus Aragónek zer dioen (2009: 51): «Los isasis, también denominados *yaras* o *igarzas*, eran terrenos forestales recién cortados que eran adeshados, por un periodo no menor de dos años, para evitar la entrada del ganado y posibilitar el crecimiento de los árboles».

Hori bateratsu dator Erdoziak (2001: 157) Etxarri Aranazko dokumentazioan bildu zuen 1617ko *Ascolichasi*-rekin:

...que es verdad que el dicho termino y endrecera de Ucuar (*Utzubar* egun) tiene por otro nombre en vascuence *ascolichasi* y para si tiene por cierto este testigo quel otro nombre de *ascolichasi* se le dio y tiene porques dessa boyaral y porque *ascolichasi* quiere decir cossa vedada en todo que aun no dexan cortar arboles ni hazer madera.

Bat dator, berebat, Robertok eta Pedrok Domaikiako dokumentazioan jaso zuten 1730eko *ascorisasi* elearekin: «no puede entrar ningún vezino de dicho Valle a cortar ni llevar leña ni para su casa ni para vender a la ciudad de Vitoria, sino tan solamente pueden entrar los ganados a pastar yerbas y beber las aguas, sin que tengan otro derecho alguno sino a lo referido, por ser *Ascorisasi*», «son egidos públicos que solo tienen la jurisdizion los demás lugares [del Valle] de aguas y yerbas en los que llaman *Ascorisasi*». Gauza bera da, bistan da, Arinek (1951: 136) biltzen duen Ataungo Agauntzako *Aizkolisasi* aurkintza izena.

Honelakoak, nire ustez, harribitxiak dira, ezin bazter ditzakegunak. Egia da hiritarrok ez dugula *itsasi* edo *aizkolitsasi* egunero ibiliko, baina hori beste hamaika hitzekin ere agitzen da. Beste hainbeste erran liteke adierakide-edo dituen *debeke* eta *betatu* hitz toponimian ezagunez.

Bukatzeko. Nire goresmenak Roberto. Onomastika arlo izugarri polita da. Lan-tegia ere ikaragarria da Euskaltzaindian: baduzu non josta, ez zara lanik gabe egonen, bi besoak gurutze, asperturik. Beraz, Akademiaren leloak dioena errepikatu beharko dizut, dizugu: ekin eta jarrai. Eta eutsi goiari!

### Erreferentziak

- Arin, J., 1951, «Toponimia y vida rural en Ataun», *Eusko Jakintza*, 5.1-2, 129-152.
- Carrasco, J., 1973, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea.
- Echaide, A., 1989, *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Hizkuntza eta Literatura» 8.
- Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Euskaltzaindia, 2018, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Hemen kontsulta daiteke: [euskaltzaindia.eus]
- González de Viñaspre, R. eta Uribarrena, P., 2016, «La "askorisasi" de Domaikia y el tanero de Orbiso», *Arabako Kontzeju Aldizkaria - Revista de los Concejos de Álava* 19, 20-21.
- Jimeno, J. M<sup>a</sup>, 2010, *Toponimia navarra. III. Cuenca de Pamplona. Cendea de Zizur*, Iruñea: Udalbide - Pamiela - Euskara Kultur Elkargoa, «Obras Completas de J. M<sup>a</sup> Jimeno Jurío» 42.
- \_\_\_\_\_, 2014, *Toponimia navarra. VI. Cuenca de Pamplona. Cendea de Itza*, Iruñea: Udalbide - Pamiela - Euskara Kultur Elkargoa, «Obras Completas de J. M<sup>a</sup> Jimeno Jurío» 45.
- Monteano, P. J., 2017, *El iceberg navarro*, Iruñea: Pamiela.
- Ondarra, Fco., 1982, «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi», *FLV* 39, 133-228.
- Oñatibia, J., 1969, *Método de euskera radiofónico*, Donostia: Edili.
- Peillen, Tx., 1991, «Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak», *FLV* 57, 89-106.
- Salaberri, P., 1994, *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*, Bilbo: Euskaltzaindia, «Onomasticon Vasconiae» 11.